

BERRI OROKORRAK

2018ko urriaren 11ean 5. zenbakia



Euskaraz Bizi!!!!


euskaraz bizi nahi dut

Ikasleen artean euskaraz bizitzeko gogoia eta ilusioa sustatzeko ekintzak egingo dira abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunaren harira. Asmo horren ikusgarritasunean eta girotzean lagungarri gertatuko delakoan, Euskaraz bizi nahi dut lelodun elastikoa edo kamiseta erostera gonbidatzen zaituztegu, egun horretan bertan –eta baita gainerakoetan ere, noski– janzteko. Hala nahi duzuenok, **tutoreari** entregatu behar diozue **eskaera-orri hau, eskatutako kamiseta bakoitzeko 10 €-rekin batera**. Orria entregatzeko azkenengo eguna honakoa da: **urriaren 19a**.

Adierazi beheko taulan modelo eta neurri bakoitzetik zenbat ale jaso nahi dituzuen:

Ikaslearen izen-abizenak eta gela: -----

	Adina/neurria	A x B (* neurri-tartea umearen garaiera da, ez kamisetaren neurria)	Ale-kopurua		Ale-kopurua
			BELTZA		
			<i>nahi dut</i>	<i>gura dot</i>	GORRIA
Haurrak eta gazteak	(1-2 urte)	86-94*			
	(3-4)	96-104*			
	(5-6)	106-116*			
	M (7-8)	118-128*			
	L (9-11)	130-140*			
	XL (12-14)	61 X 42 cm			
Estua/entailatua	S	58 X 41 cm			
	M	59 X 43 cm			
	L	61 X 44 cm			
	XL	62 X 46 cm			
	XXL	63 X 48 cm			
Zabala	S	69 X 48 cm			
	M	71 X 50 cm			
	L	73 X 54 cm			
	XL	75 X 58 cm			
	XXL	77 X 62 cm			



Ikastetxean bertan entregatuko zaizkie eskatutako kamisetak ikasleei, aurrerago.

1.-Ikasle istripu-polizaren kobrantza.

Urriko kuotarekin batera, kontu korrante bidez, 2018/19 ikasturteko **ikasleen istripu-poliza** kobratuko zaizuela jakinarazi nahi dizuegu. **15,20 euro** izango da.

2.-Guztion proiektua, guztion erronka.

Besoak zabalik hartu zituen, pasa den igandean, [Urretxu-Zumarraga Ikastolak](#) bertaratutako guztiak. **Nahi izan zuen orok ikastolaren proiektua bertatik-bertara ezagutzeko aukera izan zuen.** Ez ziren gutxi izan aukera hori baliatu zutenak, eta, modu inprobisatu batean, ikastola bera **bilgune** erakargarri bihurtu zen.

Kilometroetako kantari men eginez, guztiak galtzerdi eta guzti busti ziren atzokoan. Erronka irabazi genuen! Baina helburu guztiak betetzea eragotzi zigun euriak. **Zu ere, eguraldiak atzera botata, etxean gelditu bazinen, baduzu Kilometroak 2018 honen alde zure alea jartzeko aukera.**

Tantaz tanta eragin dezagun elkartasun uholdea!

Egin zure ekarpena Kilometroak 2018ren alde honako kontu korranteetan:

3008 0158 3336 2854 4227 (Rural Kutxa)

2095 5001 0091 1732 2404 (Kutxabank)

3035 0027 7602 7005 3696 (Laboral Kutxa)

3.-FAMILIAK ADI!!! Hona HARRIA HITZ EGITASMOAREN GONBIDAPENA! EZ GAL AUKERA egunpasa ederra egiteko zuen seme- alabekin!!!!

“**HARRIA HITZ** bisitaren udazkeneko egutegia prest dago eta **urriaren 20an** izango da ibilbidea egiteko lehen aukera. 60ko hamarkadara bidaiaria (eta gogoeta) proposatuko dizuegu eta, bide batez, goiz-pasa ederra egiteko aitzakia ere bai, 10:00etatik aurrera, **HARRIA HITZ** bisita gidatua eskainiko baitugu **Usurbilen**.

Euskal tradizioa eta modernitatea ederki uztartu dituen herria da **Usurbil**, baita **euskal sorkuntzarekin konprometitutako herria** ere. Inon baino hobeto islatzen da **60ko hamarkadan Euskal Herrian** gertatu zen **kultura-eztanda**, eta baita eztanda horren ondorena ere. **HARRIA HITZ ibilbideak, herrigunean** ikus daitezkeen zenbait elementuren bitartez, **Usurbilek euskal kultura garaikidearen susperraldian** jokatutako **papera ezagutaraztea du helburu**.

TxTxTx Txoko-aldeko Txalaparta Txokoa –Oreka TX taldeko txalapartariak Usurbilen entseatzeko eta erakustaldiak egiteko duten gunea– ezagutzeko aukera ere izango dugu.

Horrez gain, **Zumeta Arte Estudio**, Jose Luis Zumeta margolariak eta bere alaba Usok partekatutako espazioan, murgilduko gara.

EGUNA ETA ORDUA: Urriak 20, larunbata, 10:00etan.

EGITARAUA:

10:00: Usurbilgo frontoian elkartu.

10:05: HARRIA HITZ bisita gidatua herri-gunean: Dema Plaza, Udaregiren omenezko eskultura, Zumetaren murala, Mikel Laboa Plaza, Tapiaren murala, Askatasuna Plaza, Sagardoaren Monumentua.

11:15: TXTX Txoko-aldeko Txalaparta Txokora bisita.

12:35: Zumeta Arte Estudiora bisita.

13:45: Amaiera.

HIZKUNTZA: Azalpenak **euskaraz** emango dira.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK: Aldez aurretik izena ematea beharrezkoa da (25 lagun, gehienez).
688818017 / info@kultour.pro

DOAKOA!!!!!!. Joan-etorriak mikrobusean edo taxi-busean egingo dira!

4.-2018/19 ikasturteko ikasketa-bekak.

Eusko Jaurlaritzako ikasketa-beka: eskaera egiteko epea **urriaren 19an** amaituko da.

- ❖ **2017/18 ikasturtean beka eskatu zuten familiek** era telematikoa lor dezakete inprimakia osatuta. Datuak baieztatuta edo beharrezkoak diren aldaketak egin ostean, sinadura digitalarekin amaitu dezakete eskaera edo, agiria inprimatu eta ikastetxera eraman eskaera hezkuntzara bideratzeko. Beti ere ordua eskatu ondoren.
- ❖ **Eskaera berria** egiteko aukera desberdinak daude:

1. Ikastolan bertan. Horretarako, aurretik **hitzordua eskatu behar da** idazkaritzan.
2. Era telematikoan. Guraso edo tutoreak <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus> helbidean. Inprimakia inprimatu eta sinatu ondoren, idazkaritzara eramango du ikastolak eskaera baliozta dezan.
3. On-line etxetik. Aurreko aukerako pauso berdinarak jarraituko dira, baina DNI elektronikoarekin sinatuko da eta zuzenean Hezkuntzan jasoko dute eskaera.

Informazio guztia www.hezkuntza.net helbidean ikus dezakezue. Edozein zalantza argitzeko edo argibide gehiagotarako idazkaritzara deitu.

Udarregiko beka: eskaera egiteko epea **urriaren 19an** amaituko da.

Udarregi Ikastolak, irakaskuntzaren finantzazioari laguntzeko asmoz, beka sistema propioa eskainiko die urtero bere bazkideei. Artezkaritzak, 2018/19 ikasturterako ikastolak izango duen beka zenbatekoaren poltsa 10.000 € izatea adostu du. Beka sistemaren baldintzak, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta diru-laguntzaren zenbatekoaren inguruko xehetasunak idazkaritzan eta ikastolako webgunean jaso ahal izango dira.

Helburua:

- Seme-alabak Udarregi Ikastolan matrikulatzen laguntzea.
- Ordaintzeko oinarrizko arazoak dituzten ikastolako bazkideei laguntzea.

Diru-laguntza motak:

- Kuota murrizketa.
- Egoera berezietarako, kuoten %100 estalita egongo da.

5.-Eskolako Agenda 21.

Aurten "**Kontsumo jasangarria** " landuko dugu ikastolan.

Agenda 21ekoek hitzaldi bat antolatu dute eta gurasoak ere gonbidatu nahi zaituztete.

Noiz: urriak 24, 09:00etatik 11:00etara

Non: Biteri Kultur Etxea, Hernani.

Irakaslea: Aizpea Arregi - Emaus Fundazioa.

Gaia: Kontsumo jasangarria EA21en.

Izen-ematea): <http://ingurugela-g.beritzeguneak.net/eu/inscripcion.php?codigo=1870GI1C09>

OHARRAK ETAPAKA




Ez dago berririk.



1.-HH 3ko gela-bilera.

Urriaren 23an, asteartea, arratsaldeko 16:45ean seme-alaben gelan, HH 3ko ikasturte hasierako guraso-bilera izango da. Zaintza zerbitzua egongo da.



1.-Josketa-tailerrean izena emateko azken eguna.

Gaur da Hitz-Aho guraso-elkartek, LH 1., 2. eta 3. mailako ikasleei zuzenduta, josketa tailerrean **izena emateko azken eguna**.

NOIZ: urriaren 19tik azaroaren 30era


EGUNA ETA ORDUA: ostiraletan 16:30etik 18:00ra.

IZEN-EMATEA: hitzaho@udarregi.eus helbidera idatziz.

KUOTA: 20 euro.

2.-LH5 irteera Adarrara.

Datorren astean, LH5. mailakoek egun osoko irteera izango dugu ADARRAra. Printzipioz urriaren 16ean, asteartea, joango gara baina eguraldiaren arabera aldatu daiteke.



1.-Hatz 10 mekanografia-ikastaroaren kobrantza.

Jakinarazi nahi dizuegu, **Hatz 10** mekanografia-ikastaroan izena eman zuten ikasleei, urriko kuotarekin batera **5 euro** kobratuko zaizkiela.

2.-Autobusa erabiltzen duten DBHko ikasleentzat oharra.

Udaltzainek jakinarazi digutenez, datorren astean Agerialdetik Atxegalderra jaisten den errepidea asfaltatu egin behar dute. DBHko ikasleek plaza borobilaren azpiko aldean hartzen dute autobusa etxera joaterakoan, beraz, **datorren astean eta, obrak irauten duten bitartean, idazkaritza aurrean hartu beharko dute autobusa.**